

*Aurrera, batera!*

***Getaria***

*Mira al futuro*



**Getariak etorkizunera begiratu behar du, politika egiteko modu berriekin, herritarren ongizatea helburu izango dutenak, eta aniztasunetik eta talde lanetik abiatuta. Herria biziberritu nahi dugu.**

**Herrigintzatik datorren taldea osatzen dugu, elkarlanean eta aniztasunean oinarritutakoa, Getariako pertsona eta kolektibo desberdinak islatzen dituena.**

**Getariako elkartegintzan aktiboak diren pertsonak inguratzen naute, herri honegatik lan asko egin dutenak, helburu bakarrarekin: gure herriak etorkizun bat izatea, herri bizi bat izatea, Getariatik getariarrontzat egina.**

**Ilusioz eta gogoz gaude Getaria biziberritzeko, ditugun arazoei aurre egin eta etorkizuneko Getaria marrazteko. Herriarentzako proiektu sendo eta irekia dugu, lan komunitarioan, giza eskubideen bermean, eta gizarte babes indartsu batean oinarritua.**

**Hau da, pertsona erdigunean jartzea eta getariarren bizi kalitatea hobetzea helburu duena.**

**Izan Getaria berri baten protagonista, #aurreraegiteko.**



*Getaria debe mirar al futuro, con nuevas formas de hacer política, orientadas al bienestar de la ciudadanía, basadas en la diversidad y el trabajo en equipo. Queremos revitalizar el pueblo.*

*Formamos un equipo comprometido en distintas actividades del pueblo, basado en la colaboración y la diversidad, que refleja a las diferentes personas y colectivos de Getaria.*

*Me acompañan personas activas en el tejido asociativo, que han trabajado mucho por este pueblo, con el único objetivo de que tenga un futuro mejor y que sea un pueblo vivo, hecho desde Getaria para los y las getariarras.*

*Nos unen la ilusión y las ganas de revitalizar Getaria, de afrontar los problemas que tenemos y de dibujar la Getaria del futuro. Tenemos un proyecto sólido y abierto, basado en el trabajo comunitario, la garantía de los derechos humanos, y en un sistema fuerte de protección social.*

*Es decir, en poner a la persona en el centro y mejorar la calidad de vida de las y los getariarras.*

*Participa en una nueva Getaria para avanzar.*

**IOSU MUGICA GARMENDIA**

**Getariako alkategaia**  
Candidato a alcalde de Getaria

**41 urteteko getariarra. Ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Informatika eta administrazioko goi mailako teknikaria.**

*Getariarra de 41 años. Casado y padre de un hijo y una hija. Técnico Superior en Informática y Administración.*

GETARIA





**IOSU MUGICA  
GARMENDIA**



**KARMELE  
MARTIARENA  
MUGERTZA**



**AITOR URRESTI  
MARTINEZ**



**MIREN KARMELE  
AZCUE IRIBAR**



**HOSTAIZKA  
ETXEBERRIA  
ARRUABARRENA**



**AITOR JIMENEZ  
ECENARRO**



**XABIER  
ETXANIZ ARRUTI  
(INDEPENDIENTEA)**



**MIREN ITZIAR  
ETXARTE OTEGI**



**IORITZ EZENARRO  
BELOKI**



**MAITE  
BARRUETABEÑA  
ZENEKORTA**



**ARITZ IRIBAR  
SOLABARRIETA**



**ROSA MARIA ANTIA  
ALBIZU**



**JULEN ARANGUREN  
SORAZU**



**EMETERIO URRESTI  
ISASTI**



**ELENA URRESTI  
ARRUTI**



**BEÑAT OLABARRI  
EZENARRO  
(INDEPENDIENTEA)**



# PROIEKTUAK



## GETARIARRAK

**Getiarron erro nagusienetarikoa dugu euskara. Egun, Euskadiko arnaguneetako bat gara, eta hala izaten jarraitu nahi dugu, euskararen erabilera eta herriko euskalki propioa bultzatuz.**

En Getaria el euskera es una de las raíces más importantes. Somos uno de los “arnagunes” de Euskadi y queremos seguir siéndolo, impulsando el uso del euskera y el euskalki del pueblo.



## EKONOMIAREN GARAPENA

**Ekonomia indartsu bat nahi dugu, lehen sektorea eta gastronomia uztartuz, industria lehiakorra eta digitalizazioan aurreratu, eta merkataritza sare dinamikoko batekin.**

Queremos una economía fuerte, combinando el sector primario y la gastronomía, una industria competitiva y avanzada en digitalización, y con un tejido comercial dinámico.



## KIROLA

**Kirol azpiegiturak eraberritzea edo eraikitzea bultzatu nahi dugu, beste hainbaten artean, surfeko etxola eta arraun instalazioa handitu edo berritu, futbol zelai bat eta polikiroldegia hobetu.**

Queremos impulsar la reforma o construcción de infraestructuras deportivas: renovar la caseta de surf y las instalación de remo, hacer un campo de fútbol y mejorar el polideportivo, entre otros.



## AZPIEGITURAK

**Bide azpiegitura seguruak behar ditugu. Alde batetik, Meagako bidea hobetu behar dugu, kostako bidea ixten denean herriko irteera bakarra baita. Eta bestetik, oinezkoen kostako pasealekua egin eta hobetu, Santanape - Iturritxikiko zatian espaloia zabalduz eta Zumaiarako kostako pasealekuaren proiektuari jarraipena emanaz.**

Necesitamos infraestructuras viarias seguras. Por un lado, tenemos que mejorar el camino de Meaga, que es la única salida del pueblo cuando se cierra el vial de la costa. Y por otro, realizar y mejorar el paseo peatonal de la costa, ampliando la acera en el tramo de Santanape - Iturritxiki y dando continuidad al proyecto del paseo costero a Zumaiara.



## GAZTEAK

**Gazteak herriaren etorkizuna dira eta erraztasunak eskaini behar dizkiegu beraien bizi proiektuak jaioterrian garatu ahal ditzaten. Oinarrizkoa da etxebizitza aukerak izatea. Horretarako, Potzuagan babes ofizialeko etxeak eraikitzea aurreikusten dugu. Horrez gain, gaztetxe berri bat egokitu nahi dugu.**

Los y las jóvenes son el futuro del pueblo y tenemos que ofrecerles facilidades para que puedan desarrollar sus proyectos vitales en getaria. Es básico tener opciones de vivienda. Para ello, prevemos la construcción de casas de protección oficial en Potzuaga. Además, queremos acondicionar un nuevo gaztetxe.





## GETARIA – ZUMAIA PASEALEKUA

**Mugikortasun jasangarriago baten aldeko apustua egingo dugu. Zarautzera dugun pasealekuaren esperientzia ikusirik, jarraikortasuna eman nahi diogu honi eta Zumaiaraino luzatu.**

Apostamos por una movilidad más sostenible. Ante la experiencia del paseo a Zarautz, queremos darle continuidad y extenderlo hasta Zumaia.



## GAZTETAPEKO ALDAPA

**Hondartzarako aldapa honek hobekuntzak behar ditu. Alde batetik, puntu beltza izan daitekeelako argiteria faltagatik, eta bestetik bideak berak konponketak behar dituelako.**

Esta cuesta hacia la playa necesita algunas reparaciones. Por un lado, porque puede ser un punto negro por falta de alumbrado y por otro, haremos arreglos en el camino.



## ASKIZUKO BIDEA

**Getariarron bide segurtasuna bermatu nahi dugu, horregatik, Askizu eta San Prudentziorako bidean dauden puntu arriskutsuak hobetuko ditugu, bihurguneak erraztuz eta sarbideak hobetuz.**

Garantizaremos la seguridad vial de los y las getariarras. Actuaremos en los puntos peligrosos que hay en el camino hacia Askizu y San Prudencio, suavizando las curvas y mejorando los accesos.



## MEAGAKO ERREPIDEA BERRITU

**Meagako bidea guztiok erabiltzen dugu, batez ere neguko egoera zailetan. Herri eta auzokideentzako bide segurtasuna bermatzea beharrezkoa da, eta garrantzizkoa da errepide honetan hobekuntzak egitea. Alde batetik, errepidea berrituko dugu eta bestetik Meagako oinezkoak babesteko neurriak hartuko ditugu.**

El camino de Meaga lo utilizamos todos y todas, sobre todo en situaciones difíciles de invierno. Es necesario garantizar la seguridad vial y para ello es importante realizar mejoras en esta infraestructura. Por un lado, renovaremos la carretera y por otro, inplantaremos medidas para proteger a las y los peatones de Meaga.



## SANTANAPEKO PASEALEKUA

**Getaria Zarautzekin lotzen duen oinezkoen lehen zati honek arrisku ugari ditu. Alde batetik errepidearekiko hurbiltasun handia du, eta bestetik espaloia estutasunak irisgarritasuna mugatzen du. Bide segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko, espaloi hori zabalduko dugu beste erakunde batzuekin elkarlanean.**

Este primer tramo peatonal que une Getaria con Zarautz presenta numerosos riesgos. Por una parte tiene una gran cercanía a la carretera y por el otro la estrechez de la acera limita la accesibilidad. Para garantizar tanto la misma como la seguridad vial, ampliaremos esta acera en colaboración con otras instituciones.

# PROYECTOS





## FUTBOL ZELAIA

**Getariak zaletasun berezia du futbolarekiko. Hori futbitoak, areto futbolak edo plaieroek duten arrakastan ikus dezakegu, eta nola ez, herriko futbol taldeak izan duen ibilbidean eta aurreikuspenetan. Kirol horren etorkizuna bermatzeko, futbo zelai bat eraikiko dugu, beste herrietara mugitzeko beharrarekin amaituz.**


Tenemos una afición especial por el fútbol, y eso se refleja en el éxito que tienen el futbito, el fútbol sala o los playeros, o en la trayectoria y el futuro que tiene el equipo local. Para dar respuesta a esa demanda construiremos un campo de fútbol en Getaria, evitando así el tener que desplazarse a otros pueblos.



## POLIKIROLDEGIA HOBETU

**Begibistakoa da gure kiroldegiak ez dituela asetzen herritarrek dituzten beharrak, askotan instalazioen gabeziengatik, edo zerbitzua ondo ematen ez delako. Azterketa sakon bat egingo dugu ditugun ekipamenduak eta zerbitzuak hobetzeko helburuarekin: ordutegiak, gelak, makinak, erabilera motak eta abar.**

Es evidente que nuestro polideportivo no cubre las necesidades que tiene la ciudadanía, muchas veces por las carencias de las instalaciones o porque el servicio no se presta bien. Queremos hacer un estudio en profundidad y mejorar los equipamientos y servicios existentes: horarios, salas, máquinas, etc.



## SURFEKO ETXOLA

**Gaur egun Surfeko etxolak zaharberitze bat behar du, bertako erabiltzaileez gain, Gurutzeko Gorriko zerbitzuek bertako zenbait eremu elkarbanatzen dituztelako, Surf klubaren galeran.**

Actualmente la caseta de Surf necesita una restauración porque además de sus usuarios y usuarias, también comparten ciertas zonas los servicios de Cruz Roja, en detrimento de los surfistas.



## ARRAUN ELKARTE BERRIA

**Getariako arraunak bere momenturik onena bizi du, eta hau bermatu nahi dugu, beharrezkoak dituzten baliabideak bermatuz, eta etorkizuneko harrobiari instalazio egokiak eskaintzeko.**

El remo de Getaria vive su mejor momento, y queremos garantizarlo, posibilitando las nuevas instalaciones que sean necesarias para ofrecer unas condiciones adecuadas a la cantera del futuro.



## HONDARTZA ETA ITSAS KIROLA SUSTATU

**Kostako herri bezala itsas kirolean gaur egun ez ditugun aukeren eskaintza bultzatu nahi dugu, hala nola hondartzako boleibola, bela, kirol arrantza, eta beste hainbat.**

Como pueblo costero, queremos potenciar las oportunidades que tenemos en deportes acuáticos de los que actualmente carecemos, fomentando el voleibol playa, la vela, la pesca recreativa y otros deportes.





# ESKOLAKO FATXADAK BERRITU

**Getariako Herri Eskolak zaharberritze bat behar du. Kasu honetan fatxadak egoera txarrean daude eta etorkizunean arriskutsua izan daiteke bertako erabiltzaileentzat. Horregatik, bi aldeetako fatxadak txukuntzea proposatzen dugu datorren legealdian, arriskuak ekidin eta energia jasangarritasuna lortzeko.**

El colegio de Getaria necesita una renovación. En este caso las fachadas están en mal estado y en el futuro puede suponer un peligro para los y las usuarias. Por eso proponemos restaurar las fachadas de ambos lados en la próxima legislatura, evitando así situaciones de riesgo y contribuyendo a la eficiencia energética.



## 6 – 12 URTEKOENTZAKO JOLASLEKU ESTALIA

**Herriko hurrek jolasleku egokitu baten falta dute eguraldi txarra egiten duen egunetarako. Premia horri erantzuteko, Udalak herrian eta auzoetan dituen baliabideen bitartez jolasleku estali bat sustatuko dugu, erabiltzaileen beharrei lotuta, modu horretan 6-12 urte bitarteko umeek lasai jolastu dezaten.**

Getaria carece de una zona de juegos infantil adaptada para los días en los que hace mal tiempo. Con el fin de buscar una solución, a través de los recursos del Ayuntamiento en barrios y el casco urbano, promoveremos una zona de juegos cubierta para que los niños y niñas de 6 a 12 años puedan jugar tranquilamente.



## JANGELA EGOKITU

**Eskolako jangelan hainbat behar identifikatu dira, leku falta edo akustika arazoak esaterako. Horri erantzuteko, esku-hartze bat egingo dugu, jangela moldatzeko eta erabiltzaileek leku hobeto bat izan dezaten.**

En el comedor escolar se han identificado diferentes problemas como la falta de espacio o problemas acústicos. Se realizará una actuación para adecuar el comedor y que los y las usuarias dispongan de un espacio con mejores condiciones.



# MUSIKA ETXEA

**Musika talde eta elkarte ugari ditugu herrian. Getariar asko txikitatik hasi ziren herriko musika eskolan ikasten. Etorkizunera begira, harrobi sendo bat izaten jarraitu nahi dugu, ikasgela eta entsegu gune berriekin, instrumentu, ahots eta erabilera desberdinetara egokituak. Horretarako, Musika Etxea eraberritzea izango da gure apustu bat.**

Tenemos numerosos grupos de música y asociaciones musicales en el pueblo. Muchos y muchas getariarras comenzaron a estudiar en la escuela de música del pueblo desde edades tempranas. De cara al futuro, queremos seguir contando con una cantera sólida, renovando la Casa de la Música con nuevas aulas y espacios de ensayo.



## ANTZERKI TAILERRA BULTZATU

**Kultur eskaintza berri bat sortu nahi dugu, antzerkia bultzatuz. Hainbat urtez antzeppen ezberdinak egin izan dira herrian, eta horiek berreskuratzea dugu helburu.**

Queremos crear una nueva oferta cultural potenciando el teatro en el pueblo, y recuperando las distintas representaciones que han solido realizarse varios años.



## KULTUR- ARTEKOTASUN PROGRAMAK

**Getarian ditugun kultur ezberdinak ezagutarazi nahi ditugu. Elkarbizitza oinarri izanda, atzerritarren eta herritarren arteko interakzioa sustatuko dugu, ekintza ezberdinak garatuz.**

Queremos dar a conocer entre la ciudadanía las diferentes culturas que tenemos en el pueblo, llevando a cabo actividades que tengan como base la convivencia entre las mismas.



## EUSKARAREN SUSTAPENA

**Getariarron nortasun ikurretako bat da euskara, eta etorkizunean ere hala izaten jarraitzea nahi dugu. Horretarako, sustapen politika aktiboak bultzatzeaz gain, atzerritarrentzako integrazio tresna bat izatea lortu nahi dugu.**

El euskera forma parte de nuestro carácter, es una de nuestras señas de identidad y queremos que siga siéndolo en el futuro. Por ello, además de impulsar políticas activas de promoción, queremos fomentar que sea un instrumento de integración para las personas extranjeras.






## HERRIKO ETA AUZOETAKO ARGITERIA BERRITU

**Getariako argiteria publikoko kontsumoa jaisteko eta argiteria berritzeko lan egingo dugu, jasangarrtasuna eta kale ingurunearen segurtasuna areagotuz.**

Trabajaremos para reducir el consumo del alumbrado público en Getaria y renovar el mismo, de forma que sea más sostenible y posibilite unas calles más seguras.



## HERRIKO HAPO-A BERRITU

**Getariako Hirigintza Arauek beharrezkoa dute eguneratze bat, aurrekoak 2008. urtekoak baitira. Egungo errealitatea, ingurumen jasangarrtasuna eta etxebizitza berrien kokapena hartu beharko dituzte kontuan.**

Actualizaremos las Normas Urbanísticas, ya que las que están en vigor son del 2008. Deberán interiorizar la realidad actual y la sostenibilidad ambiental, y prever la ubicación de las futuras viviendas.



## INGURUMEN-AREKIKO JASANGARRRIA DEN HERRIA


**Energia aurrezteaz gain, Agenda 2030eko helburuak bultzatuko ditugu, berriztagarrien aldeko apustua eginez, hondakinak murrizteko egitasmoekin, edota lizitazioetan klasula berdeak txertatuz.**

Además del ahorro energético, impulsaremos la Agenda 2030, apostando por las energías renovables, las campañas de reducción de residuos o la inclusión de cláusulas verdes en las licitaciones.

## HERRITARR-ENTZAT APARKALEKUAK BERMATU

**Gauza jakina da herrian aparkalekuarekin dagoen arazoa, erantzun argi bat behar duena. Horretarako, herritarrei aparkalekuak bermatzen jarraitu nahi dugu, Artzapeko aldapa eta inguruko lekuak haientzako gordeta. Horrela, Alde zaharreko bizilagunek ere beraien bizilekuetatik hurbil aparkatzeko aukera izango dute.**

El problema de aparcamiento que hay en el pueblo es evidente y necesita una respuesta clara. Para ello, queremos seguir garantizando aparcamientos, reservando para los y las vecinas la cuesta de Artzape y las plazas de la zona. Así, quienes residen en la Parte Vieja también podrán aparcarse cerca de sus domicilios.







## GAZTETXE BERRIA

**Herriko kultur eta musika eragile nagusienetako bat dugu Gaztetxea, programa zabalen bultzatzaile eta musika talde berrien sorkuntza iturri. Bi alor horiek uztartuz etorkizunerako eraikin berri eta egokitu bat egingo dugu, herriko gazteen elkargunea izateaz gain, musika taldeen entseguetarako espazioa izan dadin.**

El Gaztetxe es uno de los principales agentes culturales y musicales del municipio, con amplios programas y fuente de creación de nuevos grupos musicales. Para ello, condicionaremos un nuevo edificio que además de ser el punto de encuentro de los y las jóvenes, constituya un lugar de ensayo para los grupos musicales.



## EMANTZIPAZIORAKO AUKERAK ZABALDU

**Getarian emantzipatzeko aukera gutxi dute gure gazteek, alokairuaren prezioak oso altuak direlako eta horrez gain eskaintza falta handia ere badagoelako. Hori dela eta, alokairurako dirulaguntzak areagotzeaz gain, alokairuzko etxebizitzak sustatzeko politikak jarriko ditugu martxan, Udalaren eskumenean dauden mekanismo guztiak erabiliz.**

En Getaria los y las jóvenes tienen pocas posibilidades de emanciparse. Los precios del alquiler son muy altos y además hay una gran falta de oferta. Por eso, además de incrementar las subvenciones al alquiler, pondremos en marcha políticas de promoción de vivienda en alquiler utilizando todos los mecanismos municipales a nuestro alcance.

## BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

**Etxebizitzaren arazoa nabarmena da gure herrian, gure gazteek beren bizi-proiektua sortzen hastea eta emantzipatzea nahi dugu. Arazoa argia da, etxebizitza merkaturik ez baitugu. Horregatik, ahalik eta azkarren jarri behar gara martxan, eta Potzuagan babes ofizialeko etxebizitzak berriak zein bestelako aukerak sortu.**

El problema de la vivienda es evidente en nuestro pueblo, queremos que la juventud pueda iniciar su proyecto de vida en Getaria. Ante la falta de un mercado de vivienda, debemos ponernos en marcha lo antes posible para ofrecer nuevas oportunidades y construir nuevas casas de protección oficial en Potzuaga.







## KOFRADIA ZAHARRA

**Urte askotako arazoa dugu kofradia zaharrarena, oraindik irtenbiderik eman ez zaiona eta proiektu sendo bat idatzi ez dena. Datorren urteetan eta herritarren partaidetzatik abiatuta, herriko behar ezberdinak kontuan hartuko dituen erakin baten proiektua idatziko dugu, ondoren eskumena duten erakundeei aurkezteko.**

Tenemos un problema que viene de largo en la antigua cofradía, al que todavía no se le ha dado solución ni cuenta con un proyecto serio. En los próximos años y partiendo de la participación ciudadana, redactaremos el proyecto de un edificio que contemple las diferentes necesidades del pueblo, para presentarlo a las instituciones competentes.



## TINTALEKUA

**Kofradia zaharra bezala, portuko eremuan egoera txarrean dugun beste erakina dugu Tintalekua. Gaur egun lursailen titulartasunarekin dago arazoa, eta hau konpontzea da gure lehentasuna. Horregatik, datorren legealdian alor horri irtenbidea eman, eta herriari lotuta dagoen eta bideragarria den proiektu bat idatziko dugu.**

Al igual que la antigua Cofradía, Tintalekua es otro de los edificios en mal estado de la zona portuaria. El problema está en la titularidad de los terrenos, y resolver la misma será nuestra prioridad. Por eso, la próxima legislatura vamos a despejar esta cuestión y redactar un proyecto viable que este ligado al pueblo.



## BISTAONA-MALKORBE IGOGAILUA

**Herri irisgarri batean sinesten dugu. Getariak duen orografiarekin, puntu asko hobetu beharrekoak dira. Alde zaharrak alor horretan zailtasun ugari dituela argi dago. Horregatik, Bistaona plaza eta Malkorbe hondartza elkartuko dituen igogailu bat egingo dugu, pertsona orok hondartzara joateko aukera izan dezan.**

Creemos en un pueblo accesible y la orografía de Getaria nos exige actuar en muchos puntos para mejorar. Está claro que el casco antiguo tiene muchas dificultades en ese sentido. Por eso, haremos un ascensor que unirá la plaza Bistaona con la playa de Malkorbe, para que todas las personas pueda acceder a la playa.





## HERRIKO PUNTU BELTZAK SEGURU BIHURTU

**Herrian emakumeentzat hainbat puntu beltz identifikatu ditugu, herrian, arrisku ezberdinak dituztenak argi faltagatik edo txoko ezkutua direlako: industriaguneko bidea, Gaztetapeko eskailerak, Akerregirako eskailerak, Plaza berria, etab. Horietan, argiteria areagotu eta beste zenbait segurtasun eskuhartze egingo ditugu.**

En el pueblo hemos identificado varios puntos negros con diferentes riesgos para las mujeres por falta de luz o por estar ocultos: el camino del polígono industrial, las escaleras de Gaztetape, las escaleras de Akerregi, la plaza nueva, etc. En los mismos se intensificará el alumbrado y se realizarán otras intervenciones de seguridad.



## GARAPEN BIDEAN DAUDE HERRIETAKO PROIEKTUEI LAGUNDU

**Getariatik eta inguruan ditugun GKEekin lanean, garapen bidean dauden herrietako proiektuak babestuko ditugu udalaren baliabideen % 0,7 bideratuz. Gizarte solidario batean sinesten dugu, eta beharrezko ikusten dugu Udaletik konbentzimendu horri erantzutea, Getariarekin lotura duten elkartei lagunduz, eta baita Saharari, Nicaraguari zein beste hainbat herriri ere.**

Desde Getaria y en colaboración con las ONGs locales, apoyaremos los proyectos de los pueblos en vías de desarrollo destinando el 0,7% de los recursos municipales. Creemos en una sociedad solidaria vemos necesario actuar desde ese convencimiento, apoyando la actividad de asociaciones vinculadas a Getaria y pueblos como el Sahara, Nicaragua u otros que lo necesitan.



## ZAHARTZARO AKTIBOIA SUSTATU

**Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean zahartzaro aktiboa sustatzeko programak bultzatuko ditugu, zahartze aktibo batean sinesten dugulako, eta horren alde egiteak herriko partaidetzarako bideak ere irekitzen dituelako. Horrez gain, digitalizatorako eta teknologia berrietara moldatzeko laguntza ikastaroak ere sustatuko ditugu.**

En colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa pondremos en marcha programas de promoción de la vejez activa, porque creemos en una sociedad inclusiva y porque haciéndolo abrimos también cauces de participación local de la tercera edad. También impulsaremos cursos de apoyo a la digitalización y adaptación a las nuevas tecnologías.




## LGTBIQ+ KOLEKTIBOIA IKUSARAZI ETA LAGUNDU

**Berdintasunaren alde lanean jarraituko dugu, herrian dauden kolektibo ezberdinei bisibilizazioa emanez eta ezagutza zabalduz. Horretarako, LGTBIQ+ kolektiboaren inguruan sortzen diren estigmak puskatzeaz gain, kolektiboaren gizarteratzea ere naturala izatea nahi dugu, tabuak hautsiz eta enapatia bultzatuz.**

Seguiremos trabajando por la igualdad, visibilizando a los diferentes colectivos que hay en la localidad a través de campañas informativas. Además de romper los estigmas que se generan en torno al colectivo LGTBIQ+, queremos que la integración del mismo sea natural, rompiendo tabúes y favoreciendo la empatía.





## PISU TURISTIKOEN ERREGULAZIOA ORDANANTZA BITARTEZ

**Getaria bezalako herri txiki batean bolumen handiegia hartu duen sektore bat da etxebizitza turistikoena, askotan etxebizitza merkatuan eragina duelarik. Araztea beharrezkoa da eta ordenantza bat egingo dugu horretarako.**


El de las viviendas de uso turístico es un sector que ha adquirido demasiado volumen en una localidad tan pequeña como Getaria, interfiriendo además en el mercado de la vivienda. Aprobaremos una ordenanza para su regulación.



## GETARIAKO TXAKOLINAREN LOKALA BERRITU

**Getariako Txakolina J.I. herriko enbaxadore handienetarikoa dugu, herriaren izena mundu mailan zabaltzen baitu. Horregatik, beharrezko egokitzapenak egingo ditugu gune duin bat izan dezaten.**

Getariako Txakolina D.O. es uno de los mayores embajadores de la localidad ya que difunde el nombre del pueblo en todo el mundo, por lo que haremos las adaptaciones necesarias para que tengan un espacio digno.



## EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN PLANA GARATU

**Lehentasunezko gaia dugu berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko. Horregatik, datorren legealdian, berdintasun plana garatuko dugu herriko eragile ezberdinekin elkarlanean.**

Es un desafío prioritario para construir una sociedad más igualitaria. Por ello, desarrollaremos el plan de igualdad en colaboración con los diferentes agentes de la localidad.



## HERRIKO GASTRONOMIA BALOREAN JARRI

**Gastronomia herriko kulturaren parte dugu, kalitatezko elikadura herriarekin bat doalako. Bertakoa eta garaikoa da giltzarri nagusia, urteetan erakutsi diguten bezala. Eta hori bultzatu eta balioan jartzeko ekimenak garatuko ditugu, herrian ditugun elkarte gastronomiko, jatetxe eta entitateetatik elkarlanean.**

La gastronomía forma parte de nuestra identidad, y está ligada a un aspecto clave como la alimentación de calidad. El producto local y de época es uno de sus pilares, tal y como nos han enseñado durante años. Desarrollaremos iniciativas para ponerlo en valor, colaborando desde las sociedades gastronómicas, restaurantes y entidades del pueblo.



## GETARIAKO NEKAZARITZATIK ETA ARRANTZATIK DATOZEN PRODUKTUAK SUSTATU

**Lehen sektorearen profesionalizazioaren aldeko apustua egiten dugu eta honen etorkizuna sustatu nahi dugu, belaunaldi berrien sarrera bultzatuz eta produktuen kalitatea eta ezaugarriak aditzera emateko ekintzak eginez: Getariako antxoak, hegaluzeak, tomateak edota ilarrek balore erantsia izan dezaten merkatuetan.**

Apostamos por la profesionalización del sector primario y queremos promover su futuro, impulsando la incorporación de las nuevas generaciones y realizando acciones que den a conocer la calidad y características de los productos, de forma que la anchoa de Getaria, el bonito, el tomate o los guisantes tengan un valor añadido en los mercados.





## KOMUN PUBLIKO BERRIAK HERRI ETA AUZOGUNEAN

**Bi komun publiko autogarbigarri berri jarriko ditugu datorren legealdian, garbitasuna eta higieena mantenduko dutenak. Batetik Aldamar parkean, parkerik erabiliena baita, eta erabiltzaileek errepidea gurutzatu behar izan ez dezaten. Eta bestea, Askizu auzoan, bertako auzokide eta bisitarientzat zerbitzua emango duena.**

Pondremos dos nuevos baños públicos autolimpiables en la próxima legislatura que mantendrán la limpieza y la higiene. Por un lado en el parque Aldamar, que es el parque más utilizado y para que los y las usuarios no tengan que cruzar la carretera. Y la otra, en el barrio de Askizu, que dará servicio a sus vecinos, vecinas y visitantes.



## HERRIKO GARBIKETA AREAGOTU

**Kexa asko izan ditugu urteetan garbitasunaren harira, ondorioz herriko eta auzoetako garbiketa zerbitzua areagotuko dugu, bereziki zaborra biltzen den eremuetan, baita zaborguneen egokitzapenak egin ere txukuntasuna mantentzeko. Gainera, herrian faltan botatzen diren zakarrontziak ere jarriko ditugu puntu ezberdinetan.**

Hemos tenido muchas quejas durante años por la suciedad, por lo que vamos a intensificar el servicio de limpieza del centro y de los barrios, especialmente en las zonas donde se acumula la basura, realizando también ajustes en estas zonas para mantenerlas limpias. Además, colocaremos papeleras en diferentes puntos.



## GETARIAKO MUGIKORTASUNA ERALDATU

**Herriko mugikortasunean arazoak daude, batez ere udaldia gertu dagoenean. Horregatik, alor hori aztertu eta aldatu behar da, TAO sistema berrituz: ordutegiak, tarifak, karabanen erabilera arautu batez ere portuan eta landa inguruneetan duen eraginagatik... Herriko mugikortasunean protokoloa ezarriko dugu.**

La movilidad en el pueblo presenta problemas, sobre todo cuando el verano está cerca. Estudiaremos y replantearemos este ámbito, renovando el sistema de OTA: horarios, tarifas, regulación del parking de caravanas, sobre todo por su incidencia en el puerto y en las zonas rurales... Estableceremos un protocolo para la movilidad del pueblo.



*Aurrera, batera!*

# Getaria

*Mira al futuro*



1. ESKOLAKO FATXADAK BERRITU

2. GETARIA - ZUMAIA PASEALEKUA

3. HERRITARRENTZAR APARKALEKUAK BERMATU

4. FUTBOL ZELAIA

5. GAZTEAK

6. KOFRADIA ZAHARRA

7. TINTALEKUA

8. SURFEKO ETXOLA

9. GETARIAKO TXAKOLINAREN LOKALA BERRITU

10. BISTA ONA MALKORBE IGOGAILUA

11. HERRIKO PUNTU BELTZAK SEGURU BIHURTU

12. MUSIKA ETXEA

13. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

14. MEAGAKO ERREPIDEA

15. SANTANAPEKO PASEALEKUA

16. ASKIZU - SAN PRUDENTZIO BIDEA

17. POLIKIROLDEGIA HOBETU





*Orain norabide argi batekin  
aurrera egiteko garaia da*

*Ahora es momento de avanzar  
con un rumbo claro*



**HARREMANETAN JARRI**  
PONTE EN CONTACTO

 @eajgetaria

 @GetariaEAJPNV

 @getariakoeajpnv

 @eajpnvgipuzkoa

 943 118 888

 gipuzko@gipuzko.eus

**#AURRERABATERA**